

## **Hezkuntza eredu inklusiboa**

Hezkuntza eredua eztabaidatzen ari garen honetan, argi dago euskal eskola gehienetan aplikatutako hezkuntza sistema inklusiboak arrakasta izan duela gizarte homogeenagoa sortzeko. Eta ikasle guztiak gela berean sartzeak, izan hizkuntza jatorri desberdinekoak zein nolabaiteko gaitasun (edo desgaitasun) funtzionalak dituztenak, ikasle guztiei egiten die mesede. Haurrak gai dira mota askotako ikaskideekin eta egoera linguistiko, sexual, etniko, balioen inguruko eta abar desberdinekin ikasteko eta naturaltasunez elkarrekin bizitzeko, eta gero, familia bakoitzak aplikatuko ditu etxean bere idiosinkrasia eta kulturaren berezko balioak, jokabide zibikoak eta linguistikoak.

Kooperatibismoak bere sorreratik modu inklusibo berean hitz egiten digu: parte hartzaile guztiak berdina dira eta eskubide eta betebeharrak berberak dituzte.

**“Erantzukizunak gainerako langileekiko eta gizartearekiko elkartasuna sentitzera eraman behar gaitu. Guretzat, erantzukizuna eta elkartasuna banaezinak dira”.** C18-1962/02

Pertsona guztiek lan bat aurkitzeko aukera berberak izatea nahi badugu, hizkuntza eta hezkuntza aukera berarekin abiatu behar dute beren heziketan.

**“Hasteko, gizaki guztiak pareko duintasuna eta zoria duten herritartzat jo behar ditugu”.** p292

**“Mundu berri bat sortzen ari da, gaur egun gizarte berri, justuago eta gizatiarrago baterantz jotzen da argi eta garbi, eta joera horretan kooperatibistok oso rol garrantzitsua dugu jokatzeko”.** C21-1962/07

**“Hezkuntza da ordena sozial, humano eta justu berri baten sustapenerako oinarri naturala eta ezinbestekoa”.** p191

**“Jakitea ahal izatea da”.** p184

Eta, horregatik, beste hizkuntza batzuen gaineko ezagutza naturalak gure gaitasunak gehiago garatzea ekar diezaguke. Horregatik, haur guztiak a posteriori aukera berdintasuna erraztuko duten ikasgela inklusiboetan sartu behar ditugu.